

**EBAZPENA, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiarena, honen bidez deia egiten zaie hautatutako izangaiei 2016ko martxoaren 10eko Ebazpenaren (martxoaren 22ko EHAA, 56. zk.) hamabigarren oinarrian aurreikusitako laugarren prestakuntza-ikastaroa egin dezaten, halaber, prestakuntza-ikastaro horren hasiera data eta tokia ezartzen dira. Ikastaro hori Udaltzaingoan aldi baterako jarduteko behin-behineko agenteen lan-poltsa bat sortzeko hautaketa-prozedurako fase bat da.**

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiaren 2016ko martxoaren 10eko Ebazpenez deitu zen oposizio bidez egingo zen hautaketa-prozedura, zeina osatuko baita prestakuntza-ikastaro baten bitartez, Udaltzaingoan aldi baterako jarduteko behin-behineko agenteen lan-poltsa sortzeko.

Aipatutako Ebazpenaren hamabigarren oinarrian ezarritakoaren arabera, hautatutako izangaiei deia egingo zaie nahitaez egin beharrekoa eta baztergarria den prestakuntza-ikastaroa egiteko, Lankidetzeta-hitzarmena sinatzen duten udalen beharren arabera. Horretarako, ikastaroak egun desberdinetan egin ahal izango dira eta hautatutako izangaiak lehentasun-hurrenkerari jarraituta banatuko dira.

2016ko maiatzaren 4ko, ekainaren 23ko eta irailaren 7ko Ebazpenen bidez deitu ziren lehenengo, bigarren eta hirugarren prestakuntza-ikastaroak. Lankidetzeta-hitzarmena sinatu duten udalek eskatuta, eta 2016ko martxoaren 10eko Ebazpenean ezarritakoaren arabera, honako hau


## **EBAZTEN DUT**

**LEHENENGOA.-** Hautatutako izangaiei, eranskinean zerrendatutakoei, deia egitea 2016ko martxoaren 10eko Ebazpenaren hamabigarren oinarrian aurreikusitako nahitaez egin beharreko eta baztergarria den prestakuntza-ikastaroa egiteko.

**BIGARRENA.-** Laugarren prestakuntza-ikastaroa 2017ko maiatzaren 15ean, 08:00etan, hasiko da eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian egingo da.

**HIRUGARRENA.-** Deitutako izangaiak ebaluatu egingo dira egiaztatzeko zer jakintza berri bereganatu dituzten, eta Gai ala Ez Gai gisa sailkatuko dira. Ez Gai gisa sailkatutako ikaslea prozesutik kanporatu egingo da.






**LAUGARRENA.-** Txandan hutsik gertatuz gero, horiek betetzeko orduan, hamabigarren oinarriko bigarren paragrafoan aipatutako irizpideari jarraikiz jokatu da.

**BOSGARRENA.-** Argitaratzea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Iragarki-oholean eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako web-orrian.

Administrazio-bideari amaiera ematen dion Ebazpen honen kontra interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendariari hilabeteko epean, errekurtso hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazio-auzigaietako jurisdikzioan zuzenean aurkeztu ahal izango diote uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14. artikulua araberako lurralde-eskumena duen epaitegiari bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera,.


Arkauti, 2017ko maiatzaren 11.



Malentxo Arruabarrena Julián

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusia





**ERANSKINA**

**(2017KO MAIATZAREN 11KO EBAZPENA)**

DNI
16080026J
16081215Y
16084256B
20221981J
34088380B
44143631F
44331750D
44333118C
44687257M
44689183E
45667340N
45669904T
45818703N
45821229P
45893074R
45915306S
72316155S
72405440Z
72407507B
72473613S
72476310K
72486823T
72495330C
72499014R
72500909X
72502008M
72503981T
72504208C
72507233D
72508430X
72515167P
78892782E
78916553B
78935777F
78947491Z
78952041X <sup>1</sup>
78953794S

<sup>1</sup> Kautelarki hautatua

